



#### 4 EUSKARA

### Kirolak eta gazteak aztergai

Udaletako euskara zerbitzuen topaketak, Udaltop, Lasarte-Orian egingo dira zortzigarrenez apirilaren 21ean eta 22ean. Aurten, 'Kirola D ereduanoizko?' izenburua jarri diote ekitaldiari, eta gazteen kirol jardunaren hizkuntza eredu izango dute aztergai. Astelehen aurkeztu zuten egitaraua Donostiako Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Lasarte-Oriako euskara arduradun Jon Antxordokik azaldu zuenez, guztira hamar ponentzia, bi mahain-guru eta elkarrizketa bat egingo dituzte. Gehienak Manuel Lekuona kultur etxean.



Lehenengo urteko irabazle Lone Zabala margotutako muralean.

#### 5 GURE ESKU DAGO

### Kirolariak erabakitzeko eskubideari buruz

Erabakitzeko eskubidearen inguruan hizketan aritu ziren zenbait kirolari asteartean Manuel Lekuona kultur etxe-ko batzar aretoan. Arritxu Iribarrek, Gaizka Garitanok, Mikel Astarlozak, Iraia Iparagarrek eta Axier Arteagak euren iritzia partekatu zituzten bertaratutakoekin. Gure Esku Dagok antolatutako topaguneak ekainera arte luzatuko dira.



Horma degradatuak txukuntzea du helburu Guztion Lasarte-Oria lehiaketak. Biziberritzen proiektuaren barneko ekimena da, eta Lasarte-Oriako merkataritza suspertzea du helburu, besteak beste. Proiektuak aurkezteko epea ireki dute dagoeneko, eta apirilaren 1a arte aurkeztu ahal izango dira zirriborroak.

Lasarte-Oriako horma ugari egoera kaxkarrean daude. Horri aurre egiteko egitasmoa aurkeztu du Udalak. Helburua ez da soilik estetiko. Herriko merkataritzari bultzada emateko asmoarekin ere antolatu dute. "Eragin positiboa" izango duela nabarmendu dute antolatzaileek, eta herrian bertan kontsumitzea "erakargarriagoa" egitea espero dute. Pintura, mosaikoa, collagea edota graffitiak egin ahal izango dira. Parte hartu ahal

izateko 18 urte baino gehiago eduki beharko dira. Halaber, bakarka eta taldeka aurkezteko aukera dago

#### Epea irekita

Dagoeneko aurkeztu daitezke lanak. Apirilaren 1a arte irekita egongo da izena emateko epea. Aurtengo gaia librea den arren, kontzeptu gisa aniztasuna dutenak bereziki baloratuko dituztela adierazi dute; lehenengo urtean egin bezala. DIN-A3 formatuan aurkeztu beharko dute proposamena

sinadurarik gabeko gutun azal itxi batean. Posta bidez edo Udalaren erregistroan aurkeztu ahal izango dira.

Udalak gehienez bost proposamen hautatuko ditu aurkeztutako artelanen artean. Espazio bat esleituko zaie irabazleei eta bertan egin beharko dute apirilaren 16an. Materiala artistek ekarri beharko dute.

1.500, 1.250 eta 1.000 euroko sari bana eta 500 euroko bi banatuko ditu epaimahiak.

Horietatik 200 murala hasi aurretik banatuko zaizkie, eta murala amaitzen dutenean falta zaiena.

Jakinarazi dutenez, Udalak beretzat eskuratzen ditu zirriborroak erreproduzitzeko eta gauzatzeko eskubideak sariaren truke.

#### Aurreko edizioa

2015ean 22 zirriborro aurkeztu zituzten eta horietatik bost herritarrek margotu ahal izan zituzten Lasarte-Oriako gune ezberdinetan kokatutako muralean.

Antxota herriko artisten elkarteak antolatuta, txikienek Dorre parkean mural erraldoia margotu zuten.

Lehenengo saria Lone Zabala arte ederretako ikasleak irabazi zuen. Azaldu zuenez, "ez zuen espero irabaztea". Izan ere, lehen aldian zen lehiaketa batera aurkeztu zena.

Horma erakargarri eta alaiak edukitzeak merkataritza suspertzen lagunduko duela azpimarratzen du Udalak. Proiektuan parte hartu nahi duenak, apirilera bitartean du aukera.

## Hormak berreskuratuz

Guztion Lasarte-Oria 2016 lehiaketa aurkeztu dute

### Bidaiak Taldean

Irteera Lasarte-Oriatik

- 2016
- Errusia
  - Kruzeroa Greziako irletara
  - Islandia
  - Gabonetako azokak

- 2017
- Argentina
  - Kruzeroa Baltikoko Hiriburueta
  - Mendebaldeko kostak (USA)
  - Polonia
  - New York
  - Gabonetako azokak

\*Irteera guztiak talde osaketari lotuak



# MAiTE

ESTETIKA ARETOA

Ordutegi malgua daukagu  
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria  
Tel. 943 37 08 45

Aitatxo,  
har ezazu egun bat  
zuretzako!

- Ez dakizu zer oparitu aitaren egunean? Zure aurrekontura egokitutako opari-txartela egingo dugu
- Tratamendu eta estetika zerbitzuen artean aukeratu dezakezu, edo bono bat egin dezakegu berak nahi duen zerbitzuan erabiltzeko!

Neure kabuz



Unai Muñoa

Ongi etorri Arnaldo

Arnaldo Otegi berriro ere gure artean izateak ilusio apur bat ekarri du. Elgoibartarrak berezkoak dituen baikortasuna eta aldarre politikoak etorkizunari ateak zabaldu balizkio bezala, eta hori zalantzarik gabe albiste ona da. Oraindik orain, iraganeko minari kateatuta sentitzen gara asko eta asko, besteak beste, bake nahia eta elkarbizitzarako apustua alde bakarrekoa baita.

Konfrontazio militarrik utzitako oinaze zein nekeak ugariak dira, eta ekaitzaren ostean barealdiak behar-beharrezkoak diren moduan, geuk ere behar izan dugu hausnarketarako tartea. Baina, zeintzuk dira etorkizunerako erronkak?

Nire uste apalean, kulturgintzak egiteko asko du bide horretan. Herri koloretsu bat eskaini behar diogu gizarteari, egungo arazo sozio-ekonomikoei erantzunaren proiektu politiko zehatza eraiki eta proposatu behar dugu, balore ezkeriarren sustatu, euskararen ekosistema aberastu, herritarrak euskal nortasunaren jiran antolatu, kaleak kantuz, bertsoz, antzerkiz, literaturaz, musikaz, aldarrikapenez...bete, kartzelak hustu...

Beste mundu bat posible dela sinetsi behar dugu, eta mundu berri hori txikitik handira marraztu, guretik mundu zabalera kutsatzeko. Asko dugu eskaintzeko, asko dugu esateko eta asko dugu egiteko.

Galdera berrien aurrean, ezin dugu erantzun zaharrekin jarraitu. Horretarako, ezinbestekoa iruditzen zait belaunaldi berriei lekukoa ematea, azken batean, gaur egungo gazteok ditugun arazoak eta baldintzak oso ezberdinak direlako.

Hartu dezagun arnas, amestu dezagun etorkizuna eta eraiki dezagun denon artean Euskal Herri koloretsu hori. Ez dakit Arnaldo izango den gure hurrengo lehendakaria, nahiko nuke. Baina, hala izan edo ez izan, herri honek badu nahiko indar aurrera egiteko. Atera gaitezten kalera eta egin dezagun irri, Otegi esango luken bezala, irabaziko dugu-eta.

Zorion agurrak



Noelia

Zorionak "diamantito"! Egunean gozatu konpainiaz, beldur gehiegirik ez pasa!!



Ainara

Zorionak Ainara zure hirugarren urtebetetzean!! Asier, Andoni eta familia guztiaren partez.



Sergio eta Aimar

Handitzen, handitzen... ZORIONAK TXAPELDUNAK!! 13 eta 9 muxu pottolo!



Markel

Zorionak gizontxo. 6 urte dagoeneko. Maite zaitugu!!!



Irati

Zorionak printzesa! Ondo pasa zure urtebetetzean. 6 muxu potolo aita, ama eta ahizparen partetik.



Nagore eta Arey

Zorionak familiako bi txikiei! Gorka eta Nerearen partez.



Nathaly

Zorionak etxeko sorginari gurasoen partez. Muxu handi bat!

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Garajea saltzen da Andatza plazan, 44 metro karratu. Monobolumen edo furgoneta baten-tzako edo 3 kotxeentzako egokia. Harremanetarako, 647 437 388.
- Cascante (Nafarroa) 2000 metro karratuko nekazal eremuko lur saila. 80 olibondo, 19 fruitu-zuhaitz eta belar zelai itxia du. 93 metro karratuko etxebizitza. Informazio gehiago, 655 738 167.

Salerosketa

- Psikologiako lehenengo mailako liburuak salduko nituzke. 943 363 371.

Lan-eskaintza

- Arrangedian lan egiteko pertsona bat behar da. Esperientziaduna. 943 368 834.

Lan-eskaria

- Esperientzia handiko geriatría laguntzailea eskaintzen da adineko pertsonak edo gaixo

daudenak zaintzeko, baita beste zenbait lanetarako ere. Carlos. 680 983 527.

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak eta haur edo pertsona adinduen zaintza lanetarako. Interna edo externa moduan. 685 520 590.

- 45 urteko gizonak pertsona adinduek edo dependenteak zaintzen lana bilatzen du. Beste sektoreetara ere irekia. Esperientzia handikoa eta arduratsua. Hobe goizetan. 943 161 350 edo 692 334 211.

- Nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeak garbitzeko prest egongo nintzateke. 38 urteko emakumea naiz. Egun osoan aritu naiteke eta esperientzia dut. 673 339 665.

Bestelakoak

- 8 urteko ume batentzat bateria bat erosi nahi da. Interesdunak, 943 362 614.
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Jaiotzak Heriotzak

Jaiotzak

- Aner Bobillo Isasa, martxoaren 11an.
- Lur Serrano Guinea, martxoaren 11an.
- Urko Picabea Zaldia, martxoaren 2an.



Heriotzak

- Felix Buenaposa Blanco, martxoaren 14an, 87 urte zituela.
- Jose Lizaso Alkorta, martxoaren 14an, 80 urte zituela.
- Milagros Ecenarro Elorza, martxoaren 13an, 87 urte zituela.
- Antonio Castillo Castro, martxoaren 12an, 83 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

<b>Ostirala, 18</b> Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
<b>Larunbata, 19</b> Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Igandea, 20</b> Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Astelehena, 21</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Asteartea, 22</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Asteazkena, 23</b> Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Osteguna, 24</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Ostirala, 25</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Larunbata, 26</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Igandea, 27</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Astelehena, 28</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Asteartea, 29</b> Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
<b>Asteazkena, 30</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Osteguna, 31</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

**GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero**  
Echeveste Elosegi, Elkano 9  
Hernani, Tel.: 943 552087

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Laguntzailea



Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 Lasarte-Oria  
943 371 448  
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93  
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Martín Vicioso, Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.eus

Publizitatea: Arantxi Zulaika  
publizitatea@ttakun.eus

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

## URAK



Lasarte-Oria eta Zubieta artean kokatutako ponpaketa estazioa.

## Lasarte-Oriako ur zikinak Loiolako araztegira

Hodi biltzaile berriak ur zikinak bildu eta Loiolara garraiatuko ditu

**Lasarte-Oriako, Zubietako eta Usurbilgo urak bilduko dituen hodi biltzailea eraikitze lanak amaitu dira. Ur zikinak, ondorioz, Loiolako araztegira garraiatuko dituzte. Luze jo du obrak. Izan ere, hamabost urte igaro dira Espainiako Estatuak lanak bere gain hartu zituenetik.**

## TXINTXARRI

Oria beheak, azkenik, Loiolako araztegira bidaliko ditu bere ur zikinak.

Sei urte igaro dira hodi biltzailea eraikitzen hasi zirenetik, eta hamabost Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak –Nekazaritza Ministeritzaren menpeko organoak– lanak egiteko konpromisoa hartu zuenetik.

Hodi biltzaile berriak Lasarte-Oriako, Zubietako eta Usurbilgo urak Hernaniko Florida auzoan kokaturiko Urumeako biltokira bidaliko ditu. Bertatik, Loiolako arazte-

gira garraiatuko dituzte hemendik aurrera.

13.712 metro ditu eraikitzen bukatu berri duten hodiak. Lau ponpaketa estazio altxa dituzte. Garrantzitsuena Lasarte-Oria eta Zubieta artean egindakoa da.

Urumea eta Oiartzun ibaietako ur zikinak araztegira iristen ziren lehendik. Beraz, Añarbeko Mankomunitatean Oria beheak soilik behar zuen halako egitura.

**Ibilbide luzea**

2001ean “Estatuaren interes orokorreko” izendatu zuten hodi biltzailea eraikitze lanak. Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak bere gain hartu

zuen obra, eta Añarbeko Mankomunitateak kudeatu ditu azpiegitura eta lur eremuak.

UTE Dragados eta Moyua enpresei esleitu zitzaizkien lanak, eta 2009an hasi zituzten. Guztira, 25,72 milioi euroko kostua izan du.

**Azken urratsak**

Hodi biltzailea martxan den arren, obra ez da guztiz amaitu. Lasarte-Orian, Erribera eta Beko kaleko zatian lanean ari dira oraindik.

Hala ere, hodi zaharretatik garraiatuko dituzte horiek bukatu bitartean. Azaldu zuten, maiatza bukaerarako amaituta egotea espero da.

Oria ibaiko beste zonaldean ere antzeko lanetan ari dira. Esaterako, Amasa-Villabonako hodi biltzailea martxan jarri berri da, eta Adunako araztegira garraiatzen dituzte orain ur zikinak.

## SUBERRI

### Lehenengo parte hartzea Lesoinun

SuBerri akordeoi taldeak gaur, 19:30etik aurrera kontzertua eskainiko du Tomas Garbizu Musika Eskolaren aretoan. Lesoinu musika zikloaren 30. urteurreneko emanaldiei amaiera emango dien kontzertua da honakoa.

Lasarte-Oriako taldeak egitarau anitza eskainiko du musika klasikotik bossa-nova eta jazz estiloetara. Emanaldian Ramon Irizar saxojolearen laguntza izango du taldeak.

Lehen aldia da SuBerrik Lezoko herrian jotzen duela eta taldeak gaur egun Lasarte-Orian dagoen maila musikala erakutsi nahi du.

## KONTSUMOBIDE

### Prestakuntza- eta informazio-kanpaina

Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuaren prestakuntza-zentroek “Kontsumobide zuregandik gertu” izeneko prestakuntza- eta informazio-kanpainaren edizio berria jarri dute martxan.

Euskal udalerriei zuzendutako egitasmoa da abian jarri dutena. Prestakuntza honen helburu nagusia kontsumitzaile eta erabiltzaileek ‘kontsumo arduratsuaren’ irizpideek gidatuta joko dezaten da, alegia, ondasunak eskuratu edo zerbitzuak kontratatzen dituztenean beren eskubideak eta betebeharrak ezagutu eta nola erabili jakin dezaten.

Prestakuntza jardunaldien informazio gehiago eskuratzeko, [www.kontsumobide.euskadi.eus](http://www.kontsumobide.euskadi.eus) web orrialdean dago eskuragarri. Izena emateko azken eguna gaur da.

## ERRIGORA

### Olio kanpainaren emaitzen irakurketa positiboa

Errigorak jakinarazi duenez, 2016ko olioaren kanpainan 2010 litro eskatu dira Lasarte-Orian –iaz baino 510 gehiago–, guztira 402 bidoi. Horietatik 113 (565 litro) ekologikoak eta 289 (1445 litro) konbentzionalak.

Euskal Herrian, iaz baino %65 gehiago eskatu da, eta 2014an baino %150 gehiago. Errigorako lagunen irakurketa oso positiboa izan da. “On egin baino gehiago, ederra” egin dutela nabarmendu dute.

Halaber, azpimarratu dute zenbaki gordinetan hazteaz gain, herri eta etxe gehiagotara iritsi direla. Aurreko urtetan eskatzen zutenek ere eskaera handitu dute.

Prozesuan parte hartu duten guztiak eskertu dituzte, erosleak, eta borondatez, “ekoizleengandik bidoiak jaso eta banatzen” lagundu dutenak bereziki.

Hurrengo deialdia maiatzaren 12tik 24ra egin du Errigorak. Oraingo honetan, kontserba loteak eskatu ahal izango dira.

Nafarroako hegoaldeak berezko dituen produktuak Euskal Herri osoan hedatzea eta kontsumo ohiturak aldatzea du xede ‘Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura’ egitasmoak. Oinarrizko hausnarketa batean oinarritzen da proposamen hori: “zentzugabekeria galanta” dela “hemengo baratzeek” eman ditzaketen produktuak “mila kilometrotara dauden soroetatik” ekartzea. Urtean zehar hainbat deialdi antolatzen dituzte, produktu desberdinak eskainiz: horietako bat da olioarena.

## Memoriaren eta historiaren baliogarritasuna auzitan

Lehenengo larunbatean, Elkarbizi egitasmoa kideek bizikidetzara eraikitze bigarren programari hasiera eman zioten.

Xavier Minguez psikologia doktorea eta Imanol Lizarralde historia doktorea ‘Indarkeriaren kontakizuna. Osaketa eta bideraketa, memoria edo/eta historiaren bitartez?’ solasaldia eskaini zuten.

Villa Mirentxura hurbildu zirenek memoriak eta historiak indarkeriaren kontakizuna osatzeko eta transmititzeko

baliagarritasunik baduten hausnartu ahal izan zuten Minguez eta Lizarralderen eskutik.

**Urte osoko lanketa**

Aurtengo lanketak urte amaierara arte iraungo du, hau da, martxoan hasi eta abendura bitartean izango dira saioak. Hautan bizikidetzara soziopolitikoak sendotzeko beharrezkoak diren zenbait gai aztertuko dituzte.

Egitarauak hamabi saio aurreikusten ditu, lehenengo



Elkarbizi egitasmoa kideak Villa Mirentxun bildu ziren Xavier Minguez eta Imanol Lizarralderen hausnarketak entzuteko.

astekoa barne eta bailarako herrialde ezberdinetan antolatu dira. Lasarte-Orian beste bi egingo dira.

Ekainaren 25ean ‘Autokritikaren balioa’ dokumentala aztertuko dute eta uztailearen 16an, berriz, ‘Elkarbizitza,

biolentzia eta legitimitatea’ gaia jorratuko. Antolatzaileek oraindik zehazteko dituzte hizlariak.

# Kirola eta gazteak aztergai Udaltopen

Manuel Lekuona kultur etxean egingo dira Topaketak apirilaren 21ean eta 22an

Zortzigarren Udaltako euskara Zerbitzuen Udaltop Topaketak Lasarte-Orian antolatuko dira. Aurten 'Kirola D eredua noizko? Nork eta zer egin genezake gazteen euskarazko kirol jarduna ziurtatzeko?' izango da gaia. Aurten Lasarte-Oriako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak egin dute bat antolakuntzan.

## TXINTXARRI

Astehenean aurkeztu zen Donostiako Eusko Jaurlaritzaren egoitzan Udaltop Udaletak Euskara Zerbitzuen Topaketen zortzigarren edizioa. Aurten 8-16 urte artekoen kirola izango da hizpide: antolamendua, araubidea, eskola kirola, kirola eskolak, praktika onak edota etorkizunerako erronkak. Berrikuntza dezente dakartza aurtengo edizioak, hala nola, mahai inguruak Manuel Lekuonatik kanpo.

### Kirola eta gazteak

Jorge Giménez Eusko Jaurlaritzako HPSko Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendariak azpimarratu legez, "aurtengo gaia gaurkotasan eta lehentasun handikoa da. Kirol jardunak berebiziko garrantzia dauka gazteen hizkuntza ohiturak finkatzeko".

Era berean, aurtengo edizioaren beste ezaugarri bat ere nabarmendu zuen: "Gaiak beste esparru batzuetako profesionalak eta teknikariak ere eragiten ditu, hezitzaileak, kirol monitoreak, entrenatzaileak, kirol kudeatzaileak, etab. eta horrek ezaugarri

garrantzitsu bat eranstean dio aurtengo edizioari: hizkuntzaren zeharkakotasuna, politika publiko orotan txertatu eta sustatu beharrekoa".

Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendari Nagusiak aitortu zuenez, "gaia aukeratzea izaten da buruhauste handienetako bat. Udalerri mailan aplikagarriak diren gaiak edota esperientziak ekarri nahi izaten ditugu, eta oraingoan ere, bete-betean asmatu dugula iruditzen zait. Gainera, aurtengo gaiak partehartzaileen eremua zabaltzeko aukera ematen digu. Aurtengo erronka izango da kirolarekin zerikusia daukan jendea guregan erakartzea".

### Mahai inguruak

Egitarau oparoa osatu da horretarako eta Jon Antxordoki Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko lehendakariak aurkeztu zuen egitaraua. Guztira, hamar ponentzia, bi mahai-inguru eta elkarrizketa bat bildu dira.

Hiru ponentzia izango dira topaketaren bizkarrezurra, azaldu zuen Jon Antxordokik: "Horietako batean, EAEko eta Nafarroako 16 urtez azpiko



Mikel Irizar, Jorge Gimenez eta Jon Antxordoki Udaltop Topaketen zortzigarren edizioko aurkezpenean.

KULTUR ATELIER

kirolaren antolamendua eta araubidea azalduko dugu; oso deskriptiboa izango da. Bigarrenean, ikuspegi juridikotik antolamenduan eta batez ere araubidean egin daitezkeen hobekuntzak proposatuko dira euskararen erabilera indartzeko, ziurtatzeko.... Hirugarrenean ere, hobekuntzak proposatuko ditu, baina kasu honetan ikuspegi pedagogiko-linguistikotik".

Gainera, Antxordokik aurreratu zuenez, aurtengoak badu berrikuntzarik. "Bi mahai inguru antolatu ditugu, eta aurreko ediziotako talde-lanik ez da izango. Mahai inguruak bazkalostean egingo dira, jatetxean bertan. Izena emateko formularioa betetzen dutenean, partehartzaileek mahai inguru bat edo beste aukeratu beharko dute".

Mahai inguruetan bi gai jorratuko dira: Nola kudeatu

euskara gaztetxoekin kiroleraino? Eta nola eragiten ari gara gaztetxoekin kirol jarduerako hizkuntzan gure herrian?

Honetaz gain, Gaizka Garitano entrenatzailearekin solasaldia ere izango da.

### Erreferentziazko topaketa

Mikel Irizarrek Udaltopen balioa azpimarratu, eta erreferentziazko topaketa bihurtu dela nabarmendu zuen, "batez ere, egunerokoan langai ditugun horie erantzunak ematen ahalegintzen delako eta guztiok egiten dugun lana hobetzea bilatzen duelako".

Hausnarketarako plaza ere badela aipatu zuen. "Egiten ari garenaz hausnartzeko, eta batez ere, egiten ari garen hori nola hobetu hausnartzeko. Eta bide batez, esperientziak trukatzeko eta elkarlanak abiatzeko. Orain

arte horrela izan da eta aurreratzen horrela izaten jarraitzea nahiko genuke".

Udaltop Lasarte-Oriako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak antolatzen dute, Eudelen, Euskarabidearen eta Uemaren laguntzarekin.

Zortzigarren edizioa Manuel Lekuona kultur etxean egingo da, apirilaren 21ean eta 22an.

### Egitaraua eta izena ematea

Era berean, izen-ematea dagoeneko zabalik dagoela jakitera eman zuten agerraldian. Matrikulazioa [www.udaltop.eus](http://www.udaltop.eus) webgunean egin behar da, izen-ematea atalean.

Egitarau zehatza ezagutu nahi duenak ere eskuragarri du webgunean bertan.

## Lurraren garrantzia ikasten

Asteartean 'Haizea, Lurra eta Itsasoa' ipuin kontalari zikloko azken saioa izan zen Amaraun Ludotekan.

Lurra izan zen saio horretako gaia eta HH3 eta HH4 mailako haurrek adi entzun zituzten Iker eta baratzea misterioaren ipuina.

Ipuinez gain, gaia beste baliabide dibertigarrien bitartez lantzeko jokoak eta eskulanak egin zituzten. Esate baterako, babarruna landatu zuten, erein eta lorea ateratu dadin.

### Ikasturteko azken saioa

Era berean, Amaraun Klubeko antolatzaileek aurreratu dutenez, hurrengo apirilaren

19an, HH3 eta HH4 mailako haurrei zuzendutako ikasturteko azken ipuin kontalari saioa izango da.

Gaia oraindik zehazteko dago. Baina haurrek ederki gozatuko dutela azpimarratu dute Klubeko arduradunek. Izan ere, ipuinaz gain ekintza bereziak ere egingo baituzte.

### Koloreak lantzen

Bestalde, Klubeko txikienean koloreak lantzeko tailerra izango dute apirilaren 12an.

Saio honetan koloreak landuko dituzte hainbat joko eta eskulanen bitartez eta body-paint-a ere egingo da.

Tailer hau martxoaren 8rako zegoen aurreikusia,



Ipuinaren ostean, joko eta eskulanen bitartez gaia lantzen dute Amaraun klubeko lagunek.

baina begiralea gaixo zegoela eta bertan behera geratu behar izan zen.

Hitzordua apirilaren 12an, asteartean arratsaldeko 17:30ean da, Zumaburu ikastetxeko psikomotrizitate

gelan. Saioak hiru ordu laurden iraungo ditu.

Aita, ama, aitona, amona, osaba edo izeba... haurrak heldu batekin batera parte hartu behar du ekintza honetan.

Ekintza hauetan izena eman edo informazio gehiago nahi izanez gero, 943 37 14 48 telefono zenbakian, [aisia@ttakun.eus](mailto:aisia@ttakun.eus) helbide elektronikoan edo Ttakuneko bulegoan eskainiko da.



Herritar ugari hurbildu zen Manuel Lekuonako hitzaldi aretora kirolarien iritzia ezagutzeko.

## Aitortu beharreko eskubidea

Eliteko kirolari eta kirolari ohiek erabakitze-ko eskubideari buruzko haien iritzia eskaini zuten

**Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeak ekainera bitartean erabakitze-ko eskubidea oinarri izango dituzten topaketak antolatu ditu. Arlo ezberdinetako pertsonak izango dira Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoko mahaian eseri eta haien iritzia eskainiko dutenak. Asteartean, kirolarien txanda izan zen.**

### TXINTXARRI

**G**aizka Garitano futbol entrenatzailea, Mikel Astarloza txirrindulari ohia eta herriko bi izar gazte, Axier Arteaga pilotaria eta Iraia Iparragirre futbol jokalaria izan ziren asteartean Lasarte-Oriako Gure Esku Dagoren gonbita onartu zutenak. Topagunea zuzentzen Arritxu Iribar kirol kazetaria izan zen. Lasaitasun osoz erantzun zituzten lau gonbidatuek Iribarrek solasaldian zehar egindako galderak.

### Iritzia

Arritxu Iribarrek topaketa hasieran esan moduan, ez gaude ohituak horrelako gaien inguruan kirolariek duten iritzia entzuterako.

Axier Arteaga eta Iraia Iparragirrek esaterako, inoiz haien iritzia emateko arazorik izan ez dutela azpimarratu zuten. Iraiak gainera haien aldagelan politika edo erabakitze-ko eskubideari buruz gutxi hitz egiten zela adierazi zuen.

Mikel Astarlozak berriz, talde ezberdinetan bizitako esperientzia azaldu zuen eta kontraesan bat ere jarri zuen agerian. Frantziako taldean zegoela arazorik ez zuela izan eta Euskaltelen berriz, bere iritzia gorde behar zituela jakitera eman baitzuen. Gainera, euskal txirrindularien artean konplizitatea zegoela ere azpimarratu zuen.

Gaizka Garitanok futbol taldeetan hainbeste nazionalitateko jokalaria egonik gai hauek hitz egiten ez direla

aipatu zuen. Hala ere, Erreala edo Athletic-en jokalaria zela politika solasaldiak egoten zirela ere aditzera eman zuen.

Honetaz gain, bere ustez, erabakitze-ko eskubidea politikatik alderatu behar dela esan zuen: "Aitortu behar zaigun eskubidea da".

### Ekainera arte

Lasarte-Oriako Gure Esku taldeko kideek azaldu dutenez, ekainera arte luzatuko dira mahai inguru hauek.

Hauetara gizarteko eremu anitzetako eragile edo pertsonaia esanguratsuek parte hartzea nahi dute eta horretarako arlokako topaketak egingo dira. Lehen biak martxoan izan dira: martxoaren 11n, Kataluniako prozesuan parte hartu duen SUMATE taldea ezagutzeko eta asteartekoa bigarrena dugu.

Honetaz gain, herriko kideek erabakitze-ko eskubidearen aldeko adierazpena kaleratuko du. Topaketek hau ezagutzera eman eta herritarren atxikimendua lortzeko ere balio dute.



Arritxu Iribarren galderari erantzun zieten, Mikel Astarlozak esate baterako.



Iraia Iparragirre Errealeko jokalaria eta herritarra ere izan zen bertan hizlari.



Gaizka Garitano entrenatzaileak ere bere ikuspegia eskaini zuen.



Axier Arteaga pilotariak ere izan zuen zer esanik.



**ADURIZ DE LASARTE, S.A.**

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Txistorra
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Basurde burua
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Baserri pateak

## LABURRAK.-

## Leire Martinek erlojua birrindu zuen Plasencian

Txapelketa bikaina burutu du Buruntzaldea IKTko igerilari Leire Martinek Plasencian. Eskolartekoen Erkidego arteko txapelketan aritu zen gaztetxo, Euskadiko selekzioarekin, pasa den asteburuan. Launa marka pertsonal, taldeko errekor eta Espainiako txapelketarako gutxieneko patrikaratu ditu.



Bestalde, Iñigo Ibarburu Sabadellen lehiatuko da larunbatetik datorren asteartera bitarte, absolutu mailako Espainiako Udaberriko Openean.

## Herritar ugari Donostiako Udaberriko krosean

Eguraldia lagun, herritar ugari hartu zuen parteigandean Donostian jokaturako XIV. Udaberri krosean. 56k amaitu zuten proba.

Lasarteoriatar azkarrena David Martin izan zen: 12. postuan amaitu zuen lasterketa; 33 minutu eta 40 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko. Emakumezkoen kategorian, Maite Salazar izan zen helmugara iristen lehenengo herritarra, 44:01eko denborarekin.



## Gipuzkoako finalera sailkatzea jokoan

Berebiziko partida jokatu du 14 urtez azpiko Lavie ZRT-Beltzakek bihar, Iruñean, La Unica RTren aurka. Irabazten duenak, Gipuzkoako txapelketako finala jokatu du Ordiziaren kontra, bi partidatar. Irabazi edo galdu, gauza bat ziurra da: Beltzak taldeko gaztetxoek denboraldi bikaina burutu dutela.

## Luken Carbayeda bigarren Donostian

Asteburu ona izan zen aurrekoa Bazpi txirrindularitza eskolakoentzat. Juniorrak Donostiako Zummy sarian aritu ziren. Proba amaitu zuten hiru taldekideek –Luken Carbayeda, Oier Urbizuk eta Iñigo Altunak– lehenengo hamabosten artean sailkatu ziren: bigarren, hamaikagarren eta hamalagarren postuetan, hurrenez hurren. Taldekako sailkapena ere irabazi zuten.



## LOKEko judokak han eta hemen asteburuan

Infantilak eta kadeteak Andoainen aritu ziren pasa den igandean –eskolarteko jardunaldian eta Gipuzkoako txapelketan, hurrenez hurren–. Ederki aritu ziren, bigarrenak bereziki: hiru domina jantzi zituzten, zilarrezko bi eta brontzezko bat. Tenerifen jokaturako kadeteen kopan hartu zuen parte Yeray Mendibek: 7. izan zen.

## KIROL AGENDA.-

## ATLETISMOA

Larunbata 19/Igandea 20  
Kataluniako Pista Estalia, Sabadell  
LOKEko atleta Eneritz Busto, Maider Rekondo eta Ane Galardik juniorren Espainiako pista estaliko txapelketan hartuko dute parte.

Michelingo kirol gunea, 10:15ean  
TSST - Izkiña

Michelingo kirol gunea, 11:15ean

Kattagorri Insausti - Trumoi

Michelingo kirol gunea, 12:15ean

El Punto - Ilargi

## ARETO-FUTBOLA

Ostirala 18  
Herriko txapelketa  
Michelingo kirol gunea, 19:45ean  
Indaux-Txindoki  
Michelingo kirol gunea, 20:45ean  
Viña del Mar-Txoko

## FUTBOLA

Igandea 20  
Michelin, 13:00etan  
Ostadar SKT - Ordizia KE  
Emakumezkoen igoera, 12. jardunaldia.

## SASKIBALOIA

Larunbata 19  
Michelingo kirol gunea, 9:15ean  
Also - Urdaneta HK

Larunbata 19  
Udal Kiroldegia, 11:00etan  
Ostadar SKT - Arri BKL  
Errendimenduko kadeteak, 8. jard.

## PIRAGUISMOA.-

## Hirugarren geltoki olinpikoa: Rio 2016

Bi asteburuko lana bakarrean egin du Maialen Chourrautek; Seu lautik lau jaitsiera irabazi eta Riorako plaza eskuratu du



Rio de Janeiro ariko da Maialen Chourrautek, abuztuan. Hirugarrenez ariko da Joko Olinpiko batzuetan.

MAIALEN CHOURRAUTEK

**“Riora, bai edo bai”.** Ezezkoa ez zitzaion burutik pasa ere egiten Maialen Chourrautek. Olinpiar Jokoetan bai edo bai aritzeko, ordea, plaza bermatu beharra zeukan herritarrek, Espainiako selekzioaren hautaketa probetan. Paun asteburu honetan jokatuko diren eta itxaron gabe, Seu d'Urgellen lortu zuen helburua piraguitak, lautik lau jaitsiera irabazita. Merezitako atsedena hartuko du orain, egutegi ezin estuago bati ekin aurretik.

## IÑIGO GONZALEZ

Londresko 2012ko jokoetan brontzezko domina kolokatu zuen Maialenek, eta hamaseigarren izan zen Pekingoetan, 2008an. Abuztu honetan Rio de Janeiro (Brasil) zein postu erdietsiko duen ez daki oraindik, baina bai bertan lehiatzeko aukera edukiko duela, berea baita jada hirugarren geltoki olinpiko horretan jaisteko txartela.

Maialenek berak eskuratu zuen Riorako plaza Espainiako selekzioarentzat, iaz, Londresen jokaturako Munduko txapelketan. Plaza hori ez denez nominala, hautaketa olinpikorako probak antolatu ditu Espainiak, erabakitzeko nor ariko den Rio Olinpiar Jokoetan –launa jaitsierako bi jardunaldi, bi asteburutan–.

Ez dira bukatu oraindik, jokatzeke baitago bigarren saioa, Paun (Frantzia). Herritarra ez da ariko bertan, ordea, pasa den asteburuan atera zuelako Riorako txartela, Seu d'Urgellen (Lleida, Katalunia). Aurreko txapelketatan eskuratutako bonifikazioak eskuan, lautik lau jaitsiera irabazi behar zituen plaza lortzeko; hala egin du Chourrautek.

“Lau jaitsierak irabazi ditudanez, jardunaldi erraza izan

dela pentsa dezake bat baino gehiagok, baina ez da horrela izan inondik ere”, dio Maialenek. “Lehen eguneko urduritasun eta tentsioa tarteko, ez nintzen gustura aritu larunbat goizeko jaitsieran; igandekoan ere ez, hotza eta haize asko egin baitzuen”.

Era berean, lehiatu baino aste pare bat lehenago gripeak jota egon zen herritarra eta ezin izan zuen %100ean entrenatu hainbat egunez.

Poza eta, batez ere, lasaitasuna. Hori sentitu du piraguitak, Rio de Janeiro ariko plaza patrikan. “Erasora” irten zen Seu, plaza lehenbailehen bermatzera: “Xedea lortuta, astebete irabazten dut, ez dudalako Paun lehiatu behar. Bertan ez aritzea erabaki dut, ez zaidalako gustatzen presiorik gabe lehiatzea; deskantsatzeko aste bat irabazten dut”.

## Egutegi estua aurretik

Ez da harrizkoa herritarrek atsedean hartzeko tarte guztiak baliatu nahi izatea; datozen hilabeteetan ez du horretarako aukera gehiegirik edukiko. Aste Santuko oporraldia amaitu bitartean berrituko ditu indarrak, eta Riora joango da gero, bi astez, test batzuk egitera. Maiatzean Europako txapelketa jokatu du Litovskyn

(Eslovenia), eta Munduko Kopako proba bi ekainean, Seu d'Urgellen eta Paun, hain justu. Horren aurretik, Rion beste bi aste pasako ditu.

Brasilgo hiri horretan egon da jada Maialen: test aurreolimpiko bat jokatu zuen azaroan. “Kanalak ez du desnibel handiegirik, baina olatu txiki asko sortzen ditu, eta ez da erraza abiadura hartzea. Bertako klimara eta ordu aldaketara ere ohitu beharko dut”.

## Urrea lortzea ilusio

Azaroko test horretan hirugarren postua lortu zuen Maialenek. Abuztuan ez litzateke konformatuko emaitza horrekin: “Urrezko domina irabaztea dut ilusio; Londresen gertu eduki nuen, eta berriro saiatuko naiz uda honetan”.

Entrenatu, entrenatu eta entrenatu. Aurrez finkaturako helburuak lortzeko beste formularik ez du ezagutzen piraguitak. “Neguan zehar maila oso oneko lan-saioak burutu ditut, baina badakit are hobeto aritu naitekeela”, zehazten du Maialenek. Apur bat ere ez du jaisten exigentzia-maila: “Jaitsierak teknikoki perfektu egitea ezinezkoa da, mundu bat baita horietako bakoitza, baina gerturatu zaitezke. Beti egon nahi dut hobeto; horretarako ari naiz lanean”.

Telefonoa jo eta jo ari zaio egunotan, egin duen balentria ez baita izan nolana hiko. Askok eskertzen ditu Maialenek jasotako animo eta zorian mezu denak. Erantzunak ezin zuen bestelakoa izan: “Saiauko naiz nire onena ematen jarraitzen, lorik hartu gabe, hankak lurrean ditudala”.

## Agenda

Gaur, ostirala, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur etxea



### Musika klasikoaz gozatzeko emanaldia

Danok Kideren XI. Musika Topaketen barruan, Dana hari laukotearen eta Verushka hirukoaren kontzertua. Musikene EAEko musika goi eskolako ikasleak dira musikari guztiak, eta horietako batzuk Euskadiko Gazteen Orkestrako bakarlariak ere badira. Dana laukoteak Antonin Dvorakren lana ekarriko du emanaldira; Verushka hirukoak berriz, Aram Khathaturiam eta Igor Stravinsky musikarien doinuak.

hartu nahi baduzu deitu telefono honetara: 655 847 345.

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**

**Larunbata 19, 17:00etan**

Patata tropikal antzerki taldeak 'Kondaira baten truke' haurrentzako antzerkia eskainiko du. Doan.

**ABEND GARAGARDOTEGIA**

**Larunbata 19, 18:30ean**

Andoaingo Katramila antzerki taldearen eta Kukuka antzerki eta dantza eskolaren emanaldia. Doan.

**FURIA BELTZA**

**Larunbata 19, 19:30ean**

Telmo eta Haritzen bikarriketaz gozatu ahalko da. Doan.

**ELURTZA**

**Larunbata 19, 20:30ean**

Amaia Irazabalek 'Eltxoak' lana eskainiko du. Doan.

## Lasarte-Oria

### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**


**Ostirala 18, 22:00etan**

Okendo zinema taldeak antolatzen duen zine forumean '45 años' filma eskainiko da. Sarrera, 5,50 euro.

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**

**Igandea 20, 17:00etan**

Haurrentzako zinea atalean, 'Pesadillas' filma ikusgai izango da. Sarrera, 3,80 euro.



**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**

**Igandea 20, 19:30ean**

Helduentzako zinea atalean, 'La gran apuesta' filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.



### Proiektzio digitala

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**

**Larunbata 19, 20:00etan**

Lasarte-Oriako udalak eskaintzen dituen proiektzio digitalen barruan, 'Florenzia y la Galeria Uffizi' dokumentu-

tala eskainiko da. Aurrezalmenta, 7,50 euro eta egunean, 9 euro.

### Erakusketa

**JALGI KAFE ANTZOKIA**

**Martxo amaiera arte**

'Lasarte-Oriatik mundura, mundutik Lasarte-Oriara' zikloaren barruan, Gari-koitz Lasa donostiarrak Tindoufeko kanpamentuetan ateratako irudien erakusketa ikusgai dago.

### Antzerki Topaketa

**SASOETA IKASTETXEKO GIMNASIOA**

**Larunbata 19, 11:00etatik 13:00etara**

Antzerki tailerra. Parte hartu nahi duen edozeinentzat zuzenduta dago. Parte

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Larunbata 19, 21:30ean**

Bea Egizabalek 'Baibo' ipuin saioa eta Anduriña eta Txefok 'Flamenkito' antzerkia eskainiko dute. Doan.

Arratsaldeko Antzerki Maratoira jendea animatu eta kalea girotzeko, taberna batetik bestera kale ikuskizuna izango da.

### Irakurle Txokoa

**MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA**

**Asteartea 22, 18:30ean**

Irakurle Txokoko lagunek 'Tunelak, izarrak, mozorroak eta bafleak' liburua aztertuko dute Josu Martinez idazlearen laguntzaz.

## Herritarren txokoa

### Odol ateratzea

Hilabete honetan azken astelehena Pazko astelehena izanik, odol ateratze eguna aste bete aurreratu da. Hori dela eta, martxoaren 21ean eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

### Biyak Bat Sevilla eta Caceresera bidaia

Biyak-Bat jubilatuen etxeak Sevilla eta Cacereserako bidaia antolatu du maiatzaren 20tik 29ra.

Hilabete bereko 27tik ekainaren 5era antolatuta zen beste bat, baina autobusa bete da dagoeneko. Interesatuak izena eman beharko dute astelehenetik ostiralera 10:30etatik 12:30etara.

### Eskutitza

#### Erraustegiaren truke, debaldeko argindarrak ez

"Erraustegi alboko herriek konpentsazioa eduki behar dute?", galdetu du kazetariak. Eta Markel Olano ahaldun nagusiak erantzun du: "Joko horretan sartuko bagina, onartuko genuke erraustegiak ondorio txarrak dituela. Ez da egia... Errauste-plantarekin iruzur egiten ari zaio gizarteari" (Berria, 2016.03.13).

Baina zeinek eskatu du konpentsaziorik?, erraustegiaren kontrakoek? Ez, erraustegiaren kontrakoek ez baitute konpentsaziorik osasunaren truke onartzen. Konpentsazioak eskatu dituen Olanoren alderdia bera izan da. Izan ere, EAJk, PPrekin batera, joan den azaroan erraustegiaren aldeko mozio bat aurkeztu zuen Lasarte-Orian, eta, besteak beste, hau eskatu zuen: "(que) el Ayuntamiento de Lasarte-Oria negocie con la Diputación y el Ayuntamiento de Donostia el suministro de energía gratuita al municipio". Erraustegiak ondorio txarrak ez badu, zergatik eskatu konpentsaziorik?

Bai, gauza batean, behintzat, Olanok arrazoi du: "Errauste-plantarekin

iruzur egiten ari zaio gizarteari". Zein ari zaio egiten, ordea? Ahaldun nagusia bera -inolako argumentaziorik gabe, portzierto- erraustegiak ondorio txarrak ez duela esaten duenean?, bere alderdiak lasarteoriarrei erraustegiaren truke argindarra doan "saltzen" dienean?, edo biak ala biak?

Nolanahi ere, Olanoren adierazpenak ikusita, eta orandik baten bati dudaren bat geratzen bazitzaion, garbi dago Lasarte-Oriak ez duela inola ere debaldeko argindarrak izango, eta EAJren proposamen hura gehiegizko atrebentzian oinarritutako propaganda-amarru bat baino ez zela izan.

EGUZKI

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:**

Geltoki kalea, 4 943 37 14 48 txintxarri@txintxarri.eus

# Independentsia, prekaritateari aurre egiteko gakoa

## LAB sindikatua hausnarketa prozesuan egon arren, indarrak batzen doa

Lasarte-Oriako LAB sindikatuaren egoera ona da, herrian sustraitua dago eta horren erakusle, enpresetan sindikatuaren delegatu kopuruak gora egin duela da. Alabaina, Euskal Herri mailan hausnarketa prozesuan dago sindikatua. Era berean, haien egitasmoekin aurrera jarraitzen dute, baita herriko taldeak ere. Otsailetik ekainera bitartean lan prekaritatea salatu eta independentziaren aldeko mobilizazioak egingo dituzte. LABeko kideekin izan gara gai hauei buruz jakiteko.

TXINTXARRI

**G**aur egungo egoera ekonomikoaren eta Estatuak egindako erformen ondorioz, langabezia handia dago, baita sekulako prekaritatea ere, "bertan gertatzeko etorri dena".

Erreformarekin langile eta herritarrek galtzeko asko dute eta horregatik LAB sindikatuak kideek kalera ateratzea aztertu eta egoera salatu beharra zegoela ikusi zuten, baita irtenbideak planteatu behar zirela ere.

Honela, LAB sindikatuak Euskal Herria mailan bi neurri planteatzen ditu: 1.200 euroko gutxieneko soldata eta 35 orduko lanaldia.

Lasarte-Oriako LABeko kideek azaltzen dutenez, kopurua Europa mailako herrialdeetako soldatak kontuan hartuta eta egin diren ikerketetan oinarritua dago. Hauetan, gainera, "1.200 euroak pobrezia mailatik oso gertu daudela azpimarratzen da".

Honetaz gain, 35 orduen aldarrikapenari eutsi diote berriro. "Hau ez da aldarrikapen berria. 1999an, greba handia egin zen baina krisiarekin alde batera utzi zen. Guk langabeziari soluzio emateko modua dela uste dugu. Guk aberastasunaren eta lanaren banaketaren alde egiten baitugu".

### LAB hausnarketa

Hala ere, sindikatuko kideek azaldu dutenez, sindikatua prozesu eraldatzaile batean dago murgilduta.

"Sindikalgintzak aldatu behar duela ikusi zen. Ez gara langilego guztiarengana iristen. Horregatik, hausnarketa prozesu potentia egiten ari da".

"Langilegoari buruz ari garenean ez gara ari bakarrik langilei buruz, langabezia daudenak ere bertan daude sartuak. Langile klase ikuspegitik ari gara hitz egiten", zehaztu dute.

2015ean hasi eta 2017 urtean amaituko den prozesu honek helburu bat du: sektore gehienetan tresna erabilgarria izatea.

Izan ere, azpimarratzen duten moduan, "batzuk sindikatuak balioa galdu dutela diote, baina gaur egun dugun egoeratik baliagarriagoak izan beharko lirake".

### Burujabetza

Lasarte-Oriako LABeko sindikatuko kideak eraldatzen ari dira lanean eta 1.200 euroko gutxieneko soldata eta 35 ordu egitasmoarekin bat ere egiten dute. Baina herrian beste ildo batean ere jarri dute begirada, independentzian.

Legedi berri bat eta hori lortzeko Estatu propioa behar dela argi dute, "gaur egungo markoak ez baititu euskal



Lasarte-Oriako LAB sindikatuko kideek Rafa Diez Usabiaga herritarra eta sindikatuko idazkari ohia izan dute gogoan.

herritarren bizi baldintza minimoak bermatzen".

"Negoziazio kolektiboan aurka jo dute. Ez dago orekarik. Ez dago mahairik, erreformaren neurriekin hautsi dute. Oreka ez da herritarren aldekoa. Prekaritate handia dago sektore guztietan eta hau legez posible egin dute", aipatu dute.

LABeko kideen hitzetan, Euskal herrian oreka hori hobeto mantendu da eta burujabetza izanez gero, "gai izango ginateke gure herritarren eskubideak eta bizi baldintza minimoak bermatzeko".

### Mobilizazioak

Baina honetaz gain, arestian aipatu legez, egoera salatu eta sindikatuak eskaintzen duen irtenbidea plazaratzeko beharra ikusi dute.

"Azken hilabeteetan krisia arintzen dela esaten ari dira, baina ez da egia. Prekaritate horren barruan dago eta. Horregatik, kalean egotearen beharra".

Honela, lehengo hilabeteetan mobilizazioak egiten

hasi zen herriko taldea eta ekainera arte eramango dute aurrera ekimena. "Gure aldarrikapenak ez dira ekinean amaituko, baina ekimen honek hasiera eta amaiera bat izan behar zuela uste genuen".

Leku ezberdinetan bilduko dira. "Lehenengo udaletxe zahar aurrean izan zen leku zentrikoa delako. Bigarrena, Eroski eta Lanbide artean egin genuen, egoeraren bi sinbolo txiki direlako".

Honetaz gain, gaiarekin lotuta, sektore ezberdinetako herritarrekin lanketa bat egingo dutela jakitera eman dute.

Era honetara, sindikatuak tresna bat izan nahi du, herritarrei aukera eman nahi die haien salaketa egiteko.

### Sindikatuaren bilakaera

Lasarte-Oriako LAB sindikatua oso kontent agertzen da herriko enpresetan duen inplantazioarekin.

"Lehen indarra gara Lasarte-Orian. 75 delegatu aukeratzeko enpresetan, LABek 28 ditu, ELAK 27, CCOOK 9 eta UGTk 4. Bilakaera positiboa izan da. Nahiz eta egoera ankerra izan, urte zailak baitira denontzako," azpimarratu dute.

Eta hau, sindikatua herrian sustraitua dagoenaren seinale da. Duela 10 urtetik gora, Hipodromo etorbidean du bulegoa sindikatuak.

"Aurretik Xirimiri elkartearen biltzen ginen. Orain astean arratsaldeetan hiru bider gaude bertan bilerak egiten edo herritarrei harrera egiten. Asmoa bertan jarraitzea da, beraz herritarrek ateak irekiak dituzte", adierazi dute.

### Lasarte-Oriako egoera

Hori guztiaz gain, LABeko kideek azpimarratu moduan, herrian egoera ez da ona.

Langabezia %14,5ean dago. "Krisia hasi aurretik %8koa zen eta 2012an izan zuen garaiera handiena: %16koa. Orain gora eta behera dabil".

"Irakagarria da guretzat; Gipuzkoa maila kopuru handienetarikoa da. Gainera, gure herrian prekaritate handia dago. Gure inguruan merkatalgune handiak daude. Egoera ez da erraza", onartu dute.

### Enplegu mahai

Horrekin lotuta, LAB sindikatuak Udalak martxan jarri behar duen Enplegu mahaiari buruz prentsaren bidez jakin duela salatu du.

"TXINTXARRI irakurrita jakin dugu mahai horri buruz. Eta esan beharra dugu egun guk ez dugula berririk mahai horri buruz. Gauza hauekin mediatikoki jolastea ez da serioa. Eta medioen bitartez interplatuak izatea ez zaigu ongi iruditzen. Gure ustez, horrek ez dio herriak jasotzen duen egoerari erantzuten. Herrian langabezia handia eta prekaritatea dago eta horrelako gauzen fribolizatzea ez da balekoa", azpimarratu dute.

Izan ere, LABeko kideek jakitera ematen dutenez, "ezin dugu iritzirik eman gainera. Ez dakigu benetan zein helburu duen mahaiak, zein bitarteko izango dituen... Guretzat ez da serioa gaia nola landu den".

### Rafa Diez gogoan

Hau guztiaz gain, Michelingo langile izandako, LABeko idazkari nagusi ohi eta "herriko semea" den Rafa Diez Usabiaga ekarri dute elkarrizketara. "Lasarte-Oriako LABeko gogoan du Rafa. Izan ere, Dueson baitago eta Bateragune auziko espetxeratu bakarra baita", adierazi dute.



Prekaritatea salatu eta interbide gisa, independentzia aldarrikatuz mobilizazioak egingo ditu herriko taldeak ekainera arte.